

# 30

# EUSKARAREN SENTSIBILIZAZIORAKO PILULA 2026

elhuyar

**BERRIAK**

**IRITZIA ETA HIZTEGIA**

**GRAMATIKA**



## HIRIGINTZAREN ERAGINA EUSKARAREN KALE-ERABILERAN

Soziolinguistika Klusterrak ikerketa bat egin du, eta ondorioztatu du garrantzia eman behar zaiola oinezkotasunari, eremu publikoari eta haurrentzako jolas eremuak sortzeari.

Ikerketaren arabera, auzo bateko euskararen kaleko erabilera ez dator beti bat bertako bizilagunen ezaugarri soziolinguistikoekin, besteak beste, hirigintza erabakiek auzoen arteko fluxuak eragiten dituztelako.

Gainera, auzoak modua ematen duenean «gertuko topaketak» auzoan egiteko, euskarak presentzia handiagoa izaten du, «hiztun ezagunen arteko harremanetan segurtasun linguistiko handiagoa eta estres linguistiko txikiagoa dagoelako»: «Horregatik, merkataritza eta ostalaritza establezimenduei dagokienez, hurbilekoak diren eta herri izaera zaintzen dutenetan euskara gehiago entzuten da; izaera globalagoa dutenetan, berriz, erdarak nagusitzen dira».



# BALKOITIK KALERA

## IRITZIA ETA HIZTEGIA



### *Balkoitik kalera*

Iñigo Aranbarri

Penaltietan baino poz handiagoa hartu nuen Donostiako udaleko balkoian gauzak nola gertatzen ari ziren ikusita. Lehen hitza euskaraz guztiek, baita bigarrena, hirugarrena eta azkena ere. Norbaitek ondo oldoztua zuen, eta pentsatu nuen Korrikak berak baino eragin handiagoa izango zuela keinu planifikatu hark: Realeko idoloak euskara hutsean entzuteak piztuko zuen zerbait. Mundua zegoen balkoipean eta mundu eta erdi telebista bestaldean. Kazetariak ere ttak!, amua Aperribai presidenteari, New Jerseyko entrenatzailea euskaraz ausartu zelako. Lau hilabete Euskal Herrira heldu dela. «Matarazzo krak bat da», gazteleraz Debakoak. Eta zu krok bat, neure artean. Horra abian, baina agindutako Pizkundea.

**Poza putz bihurtu** zen, ordea, jokalaria balkoitik jaitsi orduko. Aldaketa bazetorrela, festaren *kapellmeister* lanak hartuko zituen Aritz Elustondok berak iragarri zuen aurrez: «barkatu, baina erdaraz egingo dut denek ulertzeko». Trantsiziotik aldatu ez den mantra gazte euskaldunaren ahotan. Eta hara nola Pizkundearen ametsak atzera egin zuen itsasoak tsunami aurretik legez. Ura nola itzuli zen, ikusia gaude lehendik. Ikastetxe gehienetako legea: euskara ikasgelako hizkuntza da; ez patiokoa. Ez da semiologia izan behar: erdaraz dibertitzen gara, euskarak liturgiako baino ez du balio. Eta gaitz erdi hala denean.

“Hasierako poza hondatu”

Hantxe zebilen hizkuntzaren itzala, tamarindopean. Ingeles poxi bat, portuges tanta batzuk, eta ezin bestela, gainetik kendu ezin dugun mamua Igor Zubeldiaren aurkezpena egiteko unea iritsi zenean: «Kostatu egin zaigu gazteleraz egin dezan, baina dagoeneko ulertzen du». Euskaldunak euskaldunaz, espainolez. Trantsizio garaiko baino zaharragoko labankada publikoa; jai giroa ez zapuzteko, eztabaidan ez hastekoa. Txalo pailazo listoari, zein sinpatikoa euskaldun erdara motza. Eta horra Txanton Garrote osterera ere, Peñafloidako kondearen ituan barregarri.

Baina ez odol gaiztorik egin. Arnasgunetik erraz ikusten da itsasoa, omen.

# LIBURU EGUNA ALA LIBURUAREN EGUNA?

## GRAMATIKA

Nola behar du: Sagardoaren Eguna ala Sagardo Eguna, Berdelaren Eguna ala Berdel Eguna?

→ Sagardoaren Eguna da aukera egokia; beraz, horixe da gomendatzekoa. Liburuaren Eguna.

Sagardo-eguna, bertso-eguna, berdel-eguna, balea-eguna eta gisakoak hitz elkartuak dira (mendekotasunezko elkarketak). Hitz elkartuek balio generikoa izaten dute (ez dute erreferentzia konkretu edo jakinik izaten, alegia): txori-kaiola izen elkartuak, esaterako, kaiola-mota bat adierazten du, ez kaiola jakin bat; bertso-egun izen elkartuak ere egun-mota bat adierazten du (bertsoak izan/izango diren eguna alegia, eta hori berez egunero egin litekeen jarduna da), ez egun jakin bat.

Era horretan ulertuta, egun hitzarekin hitz-elkarte egokiak osatzen dira, baina esanahi erabat generikoa dutela ulertu behar dira, hala nola eskola-eguna, gogoeta-eguna, elur-eguna, greba-eguna, bertso-eguna eta abar.

